

KRONIKA

# PROPOSAMENAK ETA KULTURA BERRIA ZEHAZTEN

2. faseko 3. saioa

2020-01-16



## AURKIBIDEA

1.	1go ariketa: taldea indarketzeko jolasa .....	3
2.	2. ARIKETA: JOLASTOKI BERRIAREN INGURUKO HAINBAT DATU PARTEKATU .....	4
3.	3. ARIKETA: EGINDAKO PROPOSAMENAK LEHENESTU .....	5
4.	4.Ariketa: IRIZPIDEEN ZERRENDA SINBOLOETARA PASA ETA PROPOSAMEN BERRIA BALIOZ JANTZI.....	8
5.	5.ARIKETA: ATERATAKO ELEMENTUAK BERREZKURATU ETA HARTUTAKO ERABAKIEN KONTZIENTZIA HARTU.....	9
6.	6.ARIKETA: SAIOAREN BALORAZIOA .....	11
7.	SAIOAREN INGURUKO HAINBAT IRUDI .....	12
8.	GEHIGARRIA .....	13

## 1. 1GO ARIKETA: TALDEA INDARKETZEKO JOLASA

Taldearen kohesioa indartzeko eta talde lanaren garrantziaren inguruan hausnartzeko ariketa bat egin genuen. Horretarako, jolasarekin hasi aurretik honako mezua partekatu genion haurrei:

- *Talde bat gara, jolastoki berria pentsatzen ari garena.*
- *Eskolako kide guztien iritzia, gogoia, proposamenak jaso eta kudeatzen ari gara.*
- *Oraindik pausu, erabiki eta lan batzuk ditugu egiteko talde bezala.*

Jolasa honakoa izan da:

- Haur bakoitzak puxika bat hartuko du eta puztuko du, 1, 2 eta 3 esatean gora botako du eta denen artean globorik lurrera ez erortzea lortu beharko da. 3-5minutu pasako dugu lan honetan, *Geldi* esan arte.

Jolasean zehar nola haur bakoitza, gehien bat, bere globoaz arduratu dela ikusi da. Batzuk binaka edo hirunaka jarri dira eta bere talde “naturala” sentitzen dutenarekin globoak partekatu eta elkar zaindu dituzte. Askok globoa ez zuten oso gora botatzen globoaren kontrola eta asko urrunduko ez zela ziurtatzeko.

Minutu pare bat pasa ostean eta egoera horrela zela ikusita, denak gelako zentrora hurbiltzeko agindua eman da, “elkar ukitu behar gara, benga denak “piña” bat bezala... gertu gertu”. Momentu horretan egoera pixka bat nahastu da, bakoitzak bere globoaz arduratu da baina gertu zuenarena ere zaindu behar izan du. Oso globo gutxi erori dira lurrera.

Jolasa amaitzean gertatu denaren inguruan hausnartu dugu. Nola sentitu diren partekatu dute, zergatik, gehien bat, bere globoaz arduratu diren azaldu dute eta taldearen eta bestearen beharraz hitz egin dugu.



## 2. 2. ARIKETA: JOLASTOKI BERRIAREN INGURUKO HAINBAT DATU PARTEKATU

Eraikitzen ari den jolastoki berriak baldintza batzuk ditu. Batzarrean<sup>1</sup> antolatuak baldintza hauetaz hurrekin (talde eragilearekin) hitz egitea erabaki da, hain zuzen ere, haiek prozesu honek dituen errealitateaz ohartu daitezten eta modu horretan erabaki kontzienteak hartu dezaten. Beraz, honen harira, esku artean duten proiektuaren errealitate ekonomikoaz hitz egin da, ondorioz jolastoki berria gauzatzeko ze nolako baliabideak dituzten inguruan hitz egin da, hau da, auzolanaren garrantziaz hitz egin da. Hizketaldi honekin jolastoki berriaren gauzatzearen errealitateaz jabetzen joan dira modu kritiko batean.

Honetaz gain, etorkizuneko urratsak zeintzuk izango diren ere informatu zaie, haiek jakin dezaten ze nolako erabakiak hartu eta ze nolako lanak egin beharko dituzten oraindik jolastoki berria gauzatu arte.

Laburbilduz honako gaiak eta ideiak atera dira:

- Jolastokiaren eraberritzea auzolanean egingo da. Hau da haur, guraso eta irakasle boluntarioen artean egingo da.
- Jolastokia eraberritzeko aurrekontua txikia da, beraz, kontutan izan behar dugu proposatzen ari garen gauza batzuk oraingoz ezingo direla egin, beste batzuk bai eta beste batzuk modu xumeagoan egingo dira.
- Miren eta Ainhoak (Hiritik at) hemen pentsatu eta erabakitzen dena diseinatu eta gero proposamenarekin etorriko dira.
- Bestaldetik, jolastokiaren eremu fisikoa ez diren gauzak errazago gauzatzeko ditugu baina horretarako ondo zehaztu beharko ditugu eta irakasleekin adostu beharko ditugu hurrengo fasean.



<sup>1</sup> Argazkian agertzen dena *Batzarra* da, hau da, denak batera zirkulu batean dauden momentua. Batzarra, prozesuaren momentu ezberdinetan erabili izan da, elkar entzuteko, iritziak trukatzeko, proposamenak negoziatzeko eta proposamenak aurkezteko. Denak batera lan egiteko eta egoteko momentuak dira.

### 3. 3. ARIKETA: EGINDAKO PROPOSAMENAK LEHENESTU

Aurreko saioetan egin zen lana oinarri hartu eta prozesuak dituen baldintzaz jabetu ostean egin diren hainbat proposamen gehiago zehaztu eta hainbat erabaki hartu dira.

Hasi aurretik, orain arte ateratako ondorioak birgogoratu ditugu, maketetan eta marrazkietan oinarrituta:

- Naturak edo gune berdeek garrantzia handia hartu dute haien proposamenetan (lakuak, errekek, hau da, ura / animaliak / flora (zuhaitzak, loreak) / zelaitxoak /
- Lasaitasunarekin erlazionatzen dituzten proposamenak egin dituzte.
- Baloia erabileraren inguruan ere zeozer esan da, kasu batean baloia arriskuari aurre egiteko proposamen bat egin da “txorimalo” berezi batzuen bitartez eta proposamen bakar batean baino ez da jaso futbol zelai bat (ez zaio arreta handia jarri diseinatzerako orduan naturarekin erlazionatutako eremuari denbora eta baliabideak inbertitu zaizkiolako).
- Tirolina bat pentsatu da baita airearekin eta alturekin erlazionatuta “zanko” altu batzuk.
- Kirolen artean eskalatzea atera da.
- Txontxongilo edo antzerkirako proposamena ere.
- Kolore aniztasuna da nagusi.
- Proposatzen diren formak eta materialak itxuran ere anitzak izan beharko dira, baina honetaz ez da ezer berezirik aipatu.
- Honetaz gain gure kideek egindako proposamenetan (marrazkietan) beste hamaika gauza gehiago daude maketetan jaso ez ditugunak, beraz hauek kontutan hartu behar dira oraingo honetan ere.

Horretarako taldea bi taldeetan banatu da eta birgogoratu diren gauzak gehi eman diren irizpide berrien arabera lanean jarri dira zonifikazioa eta oinarritzko elementuak gehiago definitzen Hiritik At-ek egin den lana gorpuzteko irizpideak argiago izateko:

1go taldeak: Gune Lasaiak eta Kirol Kantxen inguruan proposamena gehiago zehaztu dute.

2. taldeak: Mugimendu Zonaldea gehiago zehaztu dute.

Honako proposamena zehaztu dute:

#### **GUNE AKTIBOA: KIROL KANTXA ZONALDEA**

Ondorengo eremu edo erabilerak egotea nahi dute baina gaur egungoak baino txikiagoak izatea nahi dute. Horretaz gain kirol horietan jolasten ez daudenen seguritatea (baloia edo pilota arriskutsua izaten da futboleko edo saskibaloian jolasten ari direnean) bermatua egon beharko du:

- Futbol: tamaina txikiagoan.
- Saskibaloia: tamaina txikiagoan.
- Frontoia

#### **ZONALDE SEMI-AKTIBOA: MUGIMENDU ZONALDEA**

Bai ala bai egon behar dutenak, nahiz eta hauetako elementu batzuk gaur egun jolastokian badauden, gehiago eta anitzagoak eta zainduagoak nahi dituzte.

- Txirrista

- Eskalada
- Kolunpio desberdinak; unitarioak baina baita kolektiboak, gurpil erraldoi formakoak

Ahalko balitz gustatuko litzaieken elementuak:

- Tirolina
- Sokazko laberintoa

Albo batera usteko prest dauden elementuak:

- Tranpolina
- Eskailerak
- Karrusela

### ZONALDE LASAIA



Honako elementuak eta gaiak dira garrantzitsuak zonalde lasaiarentzako:

- Ura-Lakua-Putzua-Erreka
- Hondarra
- Txabola
- Mahai eta eserlekuak, ahal dela eserleku borobilak
- Berdeguneak; loreak, zuhaitzak, belarra,...
- Antzerkia egiteko edo txontxongiloentzako eszenatokia
- Etzanda egoteko lekuak
- Animaliak
- Altura ezberdinetako eraikinak; dorreak, gazteluak,...
- Xibarekin jolasteko gunea



Lehenengo taldeak bi eremu mota landu ditu aldi berean, zonalde lasaiak eta hain juxtu bere antagonikoa den zonalde aktiboa edota kirol eremu guneak, kontrajarritasun hori kontutan izanik bi eremu hauek balizkoak izan daitezzen planteatzeko. Bigarren taldeak zonalde semi-aktiboa landu du eta hauxe da elementu ezberdinentzako landu duten kokaleku proposamena.


Zonalde edota eremu ezberdinen kokalekuak ondorengo argazkietan ikus daitezkeen moduan landu dituzte. Gero, batzarrean aurkeztu dituzte talde osoaren adostasuna lortuz.



## 4. 4.ARIKETA: IRIZPIDEEN ZERREDA SINBOLOETARA PASA ETA PROPOSAMEN BERRIA BALIOZ JANTZI

Batzarrean lanean jarraituz orain arte adostutako jolastoki berriarentzako irizpideak birpasatu, ber-adostu eta berriak txertatu dituzte. Horrekin batera, irizpide bakoitzari irudi bat gehitu diote. Ariketa hau oso esanguratsua izan da, hain zuzen ere, eredu berriak balio berriak dakarrela kontzientzia hartu dute. Modu honetan, jolastokiarentzako adosten ari diren kultura berria balioan jarri dute.

Honakoak dira irizpideak hemendik aurrera:





## 5. 5.ARIKETA: ATERATAKO ELEMENTUAK BERREZKURATU ETA HARTUTAKO ERABAKIEN KONTZIENTZIA HARTU

Ariketa honekin orain arte ateratako kontraesanak, arazoak, desirak, debekuak, gatazkak ... agerian utzi ditugu, hauen inguruan erabakiak hartzeko eta hartzen ditugun erabakien kontzientzia hartzeko.

Horretaz gain, proposatzen ari diren jolastoki berriak jolastokiaren kultura berri bat ekarriko duelaren kontzientzia hartu dute, hau da, beste hainbat gauzen artean, jolastokiaren kudeaketarako antolakuntza berri baten beharra dutela jabetu dira eta honen egitura posible baten bideak proposatzen hasi dira.

Beraz, orain arte proposatzen eta eraikitzen ari diren aldaketaz jabetu dira, balioan jarri dituzte eta haur eta irakasleen rolaz hausnartu dute.

Talde eragilea 4 taldeetan banatu dugu (talde anitzak izan behar ziren, bai adinean, generoan eta izaeran) eta lau gaien inguruan lan egin dute:

1. **Haurren panela:** Ze nolako antolakuntza behar duzue zuen jolastoki berriari adostu dituzuen baloreak bermatu daitezten?
2. **Irakasleen panela:** Ze ardurak izan behar dituzte irakasleek zuen patio berriari?
3. **Jantokiko hezitzaileen panela:** Ze papera izan behar dute jantokiko hezitzaileek zuen jolastoki berriari?
4. **Gurasoen panela:** nola egingo dugu gurasoak jolastoki berriaren eraikuntzan parte hartzeko?

Bakoitzak bere lanketa egin ostean, talde bakoitzak bere proposamena Batzarrean aurkeztu du eta honakoa adostu dute:

### ZERTAZ ARI GARA JOLASTOKI BERRIAZ ARI GARENEAN?


- Jolastokiaren kultura berria ez da bakarrik jolastoki fisikora mugatzen, baita bere antolakuntzan du eragina.

### NOLA GUSTATUKO LITZAIGUKE ANTOLATZEA?

- Erabakiak ez dituzte irakasleek bakarrik hartuko.
- Jolastoki lantalde bat osatuko da: ikasleak, irakasleak, zuzendaria, jangelako ordezkariak. zertarako?
  - o Patioari buruzko aldaketak, proposamenak, hobekuntzak erabakitzeko.
  - o Ondorioak adosteko.
  - o Jolastokiko txandak antolatzeko.
  - o Irakasleen eta jantokiko hezitzaileen rola jolastokian zehazteko.
  - o Bestelako gai batzuk.

### LISKARRAK KONPONTZEKO MODU BERRIEI DAGOKIONEZ?

- hezitzaileak eta irakasleak: liskarrak konpontzen lagundu. erabakiak denen artean adostu.



## **6. 6.ARIKETA: SAIOAREN BALORAZIOA**

Globoa hartu (orain arte zenuena edo berri bat) eta taldeko norbaiti oparitu behar diozu eta zergatik erabaki duzun oparitzea berari esan.

Arau batzuk daude: inor ezin da oparirik gabe gelditu, ezin diozu zure gelako bati oparitu eta opariaren zergatia positiboa izan behar du.

Balorazio honekin taldearen elkar zaintzaren beharraz ohartu nahi dugu, baita taldekideen artean taldekideak balioan jarri.

## 7. SAIOAREN INGURUKO HAINBAT IRUDI



## 8. GEHIGARRIA

Saio honetarako erabili zen karta didaktikoa gehitzen dugu.

DENBORA	HELBURUAK	ZER	BALIABIDEAK	NORK
10'		<b>1go ariketa:</b>		
10'	Taldea kohesioa landu Talde lanaren garrantzia azpimarratu	<p>Honako mezua emango zaie hasi aurretik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gu talde bat gara, jolastoki berria pentsatzen ari garena.</li> <li>• Eskolako kide guztien iritzia, gogoia, proposamenak jaso eta kudeatzen ari gara.</li> <li>• Oraindik pausu, erabiki eta lan batzuk ditugu egiteko talde bezala.</li> </ul> <p>Haur bakoitzak puxika bat hartuko du eta puztuko du, 1, 2 eta 3 esatean gora botako du eta denen artean globorik lurrera ez erortzea lortu beharko da.</p> <p>3-5minutu pasako dugu lan honetan, Araitz Geldi esan arte.</p> <p>Hurrei honako galderak egingo dizkiogu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nola sentitu zarete jokoan?</li> <li>2. Talde lana egon da? Non sumatu duzue lan hori?</li> <li>3. Zergatik izan da inportantea talde lana?</li> </ol> <p>Botatzen dituzten erantzunak Araitzek prozesu honetan taldearen garrantziarekin lotuko du.</p>	26 globo Argazki kamera	araitz
10'		<b>1. ARIKETA: JOLASTOKI BERRIAREN INGURUKO HAINBAT DATU PARTEKATU</b>		
	- Dagoen errealitate ekonomikoa azaldu. -jolastokiaren gauzatzea nola egingo den informatu. - jolastokiaren gauzatzearen errealitateaz jabetuarazi.	<p><b>Jolastokia berritzearen inguruko informazioa hurrekin partekatu:</b></p> <p>Jolastokiaren eraberritzea auzolanean egingo da. Hau da haur, guraso eta irakasle boluntarioen artean egingo da proposatzen dena.</p> <p>Jolastokia eraberritzeko aurrekontua txikia da, beraz, kontutan izan behar dugu proposatzen ari garen gauza batzuk oraingoz ezingo direla egin, beste batzuk bai eta beste batzuk modu xumeagoan egingo dira.</p> <p>Miren eta Ainhoak (Hiritik at) hemen pentsatu eta erabakitzen dena diseinatu eta gero proposamenarekin etorriko dira.</p> <p>Bestaldetik, jolastokiaren eremu fisikoa ez diren gauzak errezago gauzatuko ditugu baina horretarako ondo zehaztu beharko ditugu eta irakasleekin adostu beharko ditugu hurrengo fasean.</p>		miren
60'		<b>2. Ariketa: PROPOSATUTAKO MAKETEN ETA IDEIEN INGURUAN ERABAKIAK HARTU</b>		
	- Egin ziren proposamenak gehiago zehaztu.	<b>2. saioan utzitako lana berrartu eta erabakiak hartu behar badira adostu.</b>	-A3 PLANOAK - GUNE	miren

<p>10'</p>	<p>-gaiaren inguruan hartu beharreko erabakiak hartu.</p>	<p style="text-align: center;"><b>INFORMAZIOA BERGOGORARAZI</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>MAKETAK</b> Dinamizatzaileek aurreko saioan ikusi zenaren araberrako ondorio batzuk transmitituko dizkiegu, beti egin dutenaren inguruko adibideak jarritz:             <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ Naturak edo gune berdeek garrantzia handia hartu dute haien proposamenetan (lakuak, errekek, hau da, ura / animaliak / flora (zuhaitzak, loreak) / zelaiatxoak /</li> <li>◦ Lasaitasunarekin erlazionatzen dituzten proposamenak egin dituzte.</li> <li>◦ Baloiaren erabileraren inguruan ere zeozer esan da, kasu batean baloiaren arriskuari aurre egiteko proposamen bat egin da "txorimalo" berezi batzuen bitartez eta proposamen bakar batean baino ez da jaso futbol zelai bat (ez zaio arreta handia jarri diseinatzerako orduan naturarekin erlazionatutako eremuari denbora eta baliabideak inbertitu zaizkiolako).</li> <li>◦ Tirolina bat pentsatu da baita airearekin eta alturekin erlazionatuta "zanko" altu batzuk.</li> <li>◦ Kirolen artean eskalatzea atera da.</li> <li>◦ Txontxongilo edo antzerkirako proposamena ere.</li> <li>◦ Kolore aniztasuna da nagusi.</li> <li>◦ Proposatzen diren formak eta materialak itxuran ere anitzak izan beharko dira, baina honetaz ez da ezer berezirik aipatu.</li> </ul> </li> <li>• <b>MARRAZKIETAKO INFORMAZIOA</b> Honetaz gain gure kideek egindako proposamenetan (marrazkietan) beste hamaika gauza gehiago daude guk maketetan jaso ez ditugunak.</li> </ul>	<p><b>EZBERDINEN ELEMENTU ZERRENDAK</b> Kartulinak (bada ez bada) Gometxak (bada ez bada)</p>	
<p>50'</p>		<p>*** Kontutan hartu ez ditugun gauza hauetatik zeintzuk dituzte garrantzia gehiago zuentzat eta zuen kideentzat zuen ustez.</p> <p style="text-align: center;"><b>ZONALDEAK ETA ELEMENTUAK DEFINITU</b></p> <p>ZONIFIKAZIOA eta ELEMENTUAK GEHIAGO DEFINITZEA Eskola patioaren zonifikazioa eta bakoitzean kokatu nahi dituzten elementuak are gehiago adosteko 2 talde</p>		

		<p>osatuko ditugu:</p> <p>1. taldea: GUNE LASAIA eta KIROL KANTXA                  Bertan bi zonifikazio hauek landuko dituzte eta baita bakoitza non kokatu, horretarako bi kolore ezberdinetako errotulagailuak erabiliko dituzte eta baita, aurreko saioan zein gainontzeko ikasleek marrazkien bitartez helarazitako proposamenak kontutan hartuz, zonalde bakoitzean egon beharreko elementuak definitzen saiatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gune lasaia_kolore berdez                      Aipatu gisa, gune hauek non, zenbat eta ze elementuz osatua adosten ahalegindu beharko dira. Gune lasaia, kirol kantxaren aurretik landuko da.</li> <li>• Kirol kantxa_kolore urdinez                      Kirol kantxa eta frontoiari dagokionez, mantendu, handitu edota txikitzearen aldeko apustua egiten duten adostu beharko dute, beti ere gune lasaiak errespetatuz, gogorazi beharko baizaie gune lasaiak baloi zein pilotetaz babesturik egon behar direla.</li> </ul> <p>2. taldea: MUGIMENDU ZONALDEA                  Bigarren talde honek zona semi-aktiboak landuko dituzte soilik, orain arte egindako elementuen proposamenetatik ugarienak eta anitzenak, gune hauei dagozkienak baitira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugimendu zonaldea_kolore gorriz                      Zonalde hauek non kokatuko lituzketen eta bakoitzean ze elementu konkretu jarriko lituzketen adierazi beharko dute.</li> </ul>		
30´		<b>3. Ariketa: IRIZPIDEEN ZERRENDA SINBOLOETARA PASA ETA PROPOSAMEN BERRIA BALIOZ JANTZI</b>		
	<p>- Irizpideak errepasatu.                  -atera diren irizpide berriak gehitu.                  -irizpideei sinboloak jarri.                  -kontzientzia hartzea eredu berriak balio berriak ekartzen dituela.</p>	<p>PLENARIOAN</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irizpide batzuk adostu genituen aurreko egunean eta hauek errepasatuko ditugu.</li> <li>• Aurreko saioan beste balore batzuk eta irizpide atera ziren, sozializatuko ditugu eta adosten ditugunak gure zerrenda berrira batuko ditugu, gero sinboloa bilatuko diegu.</li> <li>• Aurreko ariketa egin eta gero zuen proposamen berriak bestelako baliorik indartu-bultzatzen duela iruditzen zaizue? Bai bada eta adostasuna badu gure zerrendara gehituko dugu eta sinbolo bat</li> </ul>	<p>-Irizpideen zerrenda berria                  -Irizpideentzako sinbolo asko eta 4 aldiz errepikatuak.                  -blue tuck</p>	<b>araitz</b>



	<p>-balore berriak identifikatu. -balore berriak balioan jarri -proposamen berriaren iraultzaz jabetu eta arro egon.</p>	<p>bilatuko diogu.</p> <p>Balio horiek proposamen berriaren ze lekuetan ikusten duten identifikatu beharko dute eta sinboloa jarri beharko dute.</p> <p>**** proposamen berriaren iraultzaz jabetu eta arro egon arazi. **** ***partehartzailea balorea atera beharko litzateke</p>	<p>-paper txikiak sinbolo berriak egiteko. -retulkiak</p>	
60'		<b>2. ariketa: ATERATAKO ELEMENTUAK BERRESKURATU</b>		
	<p>5'</p> <p>- orain arte ateratako kontraesanak, arazoak, desirak, debekuak, gatazkak... agerian utzi. - atera diren elementu guzti hauetaz kontzientzia hartu. - erreflexionatzen hasia kultura berri baten bueltan. -proposatzen ari diren jolastoki berriak kultura berria beharko duela ohartzea. -kultura berri hori haiek pentsatu behar dutela jabetzea.</p> <p>15'</p>	<p><b>Orain arte proposatzen eta eraikitzen ari diren aldaketetaz jabetuarazi eta balioan jarri eta haur eta irakasleen rolaz hausnartu.</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Jolastoki berriak antolakuntza berria beharko du ere, eta jolastoki honetan 3 protagonista daude: haurrak, irakasleak eta jantokiko hezitzaileak. Gurasoak hausnarketa honetan sartuko dugun 4. Subjektua izango da, jolastokiaren gauzatzean garrantzia dutelako.</li> <li>2. 24ko taldea 6 pertsonetako 4 taldeetan banatuko dugu. Talde guztietan 1-2-3-4-5-6. Mailako pertsona bat egon beharko du. Talde bakoitzak panel batean lan egingo du.</li> <li>3. Talde bakoitzak kartulina-panel batean lan egingo du eta galdera batzuk izango ditu erantzuteko. <ol style="list-style-type: none"> <li>a. <b>Haurren panela:</b> Ze nolako antolakuntza behar duzue zuen jolastoki berrian adostu dituzuen baloreak bermatu daitezten? (araitz edo miren)</li> <li>b. <b>Irakasleen panela:</b> Ze ardurak izan behar dituzte irakasleak zuen patio berrian? (araitz edo miren)</li> <li>c. <b>Jantokiko hezitzaileen panela:</b> Ze papera izan behar dute jantokiko hezitzaileek zuen jolastoki berrian? (leire)</li> <li>d. <b>Gurasoen panela:</b> nola egingo dugu gurasoak jolastoki berriaren eraikuntzan</li> </ol> </li> </ol>	<p>-haurren kartulina -irakasleen kartulina -jantokiko hezitzaileen kartulina -gurasoen kartulina -retulkiak -blue tuck</p>	<b>araitz</b>

	15'	<p>- kultura berriaren inguruko adostasunak bilatu. -elkar-entzutea bultzatu. -negoiazio jarrerak sustatu. - haur aktiboak eta propositiboak izateko baldintzak sortu.</p>	<p>parte hartzeko? (Asier)</p> <p>*** Haurrak izango dira paneletan idatziko dutenak, hau da, haur bat aktalaria izango da.</p> <p>4. PLENARIOA</p> <p>a. Talde bakoitzak bere paneletan atera dena irakurri edo azalduko du eta adostasunak jasoko dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Entzule daudenei Egin duten lanari zeozer gehitzeko, hobetzeko edo galdetzeko duten galdetuko diegu.</li> </ul> <p>b. Atera dena oso argi gelditu behar zaie haurrei.</p> <p>**** <b><u>dinamizatzaileentzat</u></b>: jolastokiaren kudeaketarako subjeto ezberdinetako (6 haur, irakasle-langile, jantokiko hezitzaile)talde bat osatu behar da jolastoki berriaren kultura abiatzeko ardura izango duena, kudeaketa bermatuko dutena, erabakiak hartuko dituen, kultura berria betetzen dela ziurtatuko duena, jarraipena egingo duena, berrikuntzak erabakiko dituen, ... Beraz, haurrekin antolaketa eredu honetara heldu behar gara.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Nola jarriko dugu guzti hau martxan?</li> <li>○ Nola egingo dugu honen jarraipena?</li> </ul>		
15'			<p><b>5. ariketa: EBALUAZIOA</b></p>		
			<p>Borobil handi bat egingo dugu eta lurrean eseriko gara. Gero honako galderak edo antzekoak botako ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer moduz joan da goiza? Berdin pentsatzen dutenak elkartzea eskatuko diegu, hau da taldetxoak egingo dituzte iritziaren arabera.</li> <li>• Zer da gehien gustatu zaizuen gaurko goizetik? Zergatik? Berriz ere taldeetan jarri beharko dira iritziaren arabera.</li> <li>• Zeozer berria ikasi duzue? zer? Ozen bota beharko dute.</li> <li>• Hasierako globoetako bat hartu eta margoztu nahi duzuen bezala. Taldeko norbaiti oparitu, baina ezin da zure gelakidea izan. Zergatik oparitu diozu?</li> </ul>	<p>Globoak retulkiak</p>	

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

HIRITIK AT

